

AINHOA ZARANDONA andrea, ZORNOTZAKO BARNETEGIA

Gasteizen, 2000ko apirilaren 19an

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUNA OHI PARTIKULAREN ERABILERA DELA ETA

Ainhoa Zarandona andrea, agur:

Berriki jaso dugu zure gutun bat *ohi* partikularen erabileraz bi galdera biltzen zituena.

Lehendabizikoa, aditzak aspektu burutua ala burutugabea behar *duen* (*etorri ohi da / etortzen ohi da*). Bigarrena, zein hurrenkeratan eman behar diren *ohi*-ren bidez osatutako perpaus ezezkoak (*ez da etorri ohi / ez ohi da etorri*).

Badirudi oro har, lehenari buruz diozuna hala dela; hau da, burutua hegoaldeko tradizioan eta burutugabea iparraldekoan direla nagusi, nahiz eta gaur egun iparraldean ere nagusitzen ari ei den aditz burutua *duen* egitura. Beraz, ez dugu arazorik ikusten biak onartzeko:

Ez ohi da etorri eta *Ez ohi da etortzen*

Bigarren auzian batez ere *ez ohi da etorri* hurrenkera ontzat eman daitekeen galdetzen duzu; literatur tradizioan ohikoena ez bada ere, ez dira gutxi hurrenkera hori dutenak; Axularrek, Ziburuko eta Sarako Etxeberriek eta Mitxelena badituzte, besteak beste, era honetakoak. Ez zaigu, hortaz, txartzat emateko hurrenkera iruditzen. Hona hemen adibide batzuk:

Ingoikoa ez ohi da unhatzen (Etxeberri Ziburukoa, Man II, 12)
gaztelaniaz ... ez ohi da letraz-letra irakurri (K. Mitxelena, MEIG IV, 129)
ez ohi da lan alferra izaten (K. Mitxelena, MEIG IV, 148)
Zeren halakoek ez ohi dute erraiten ongirik (Axular, 291)
Ez ohi du, begi gorde anhitz hingatzen (Axular, 187)

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.